

Igo zuhaitzera!

**Maidar Iantzi
Goienetxe**


Heziketa txarraz idatzien aitzinekoan, eta

horri helduko diot berriro, bertze ikuspegi batetik, aunitz pentsatzen dudana gaia delako, kezkatzen nauena eta ingurukoekin komentatzen dudana. Zenbatez zoriontsuago izanen ginen bakoitza garen bezalakoa izanez, eta ez bertze inor, ez bertzeek nahi edo espero dutena.

Idea hori etorri zait Hazte Oir plataforma ultrakatolikoaren autobusa geldirik ikustean, eta Munita eta enparauak sutan (Eliza katolikoak gudan duen pisu itzelaz bertze batean idatziko dut). Chrysallis EHk ume transexualak kontent bizitzearen alde egindako kanpaina entzutetsuari erantzuten dio "Háztelo Mirar"-ekoen autobusak. Baina jendeak eta honekin batera instituzioek gasolina kendu diote.

Haur transexualen familien elkartekoak pozarren daude horrekin. «Jendartea prest dago. Paradigma aldaketa historikoa da: diren bezala biziko diren transexualen lehen belaunaldia izanen da. Zinez hunkigarria da», adierazi du Bea Server kideak. Eta aniztasuna onartzean norbere buruari, eta guztiei, on egiten diegula erantsi du. Hala dela iruditzen zait bete-bete. Askatasuna irabazten dugu, izugarrizkoa. Txikitatik norbera den bezala tratatzeko sentsibiltatea aldarrikatzen dut, oraindik kalean haurrek «*mari-cón*» oihukatzen duten garaian, oraindik desberdina seinatu eta epaitzen den garaian, oraindik gure irudimenari eta izaerari mugak jartzen dizkion heziketa jasotzen dugun garaian (ez soilik eskolan, toki guztietan, denok baikara hezitzaile eta hezitako).

Eskolako heziketaren giltza den ebaluazioaren inguruan lanketa zabal bat egiten ari diren LABeko kideek azaldu didaten bezala, ez du balio elefanteak, tximuak, krokodiloak eta mota guztietako animaliak dauden oihanean honako azterketa jartzeak: igo zuhaitzera! •



la utzi zuen idatzita Alina de Castro albaitariak. Salak nabarmendutakoaren arabera, adituen jarraibideak hartzen dituzte kontuan. Horretan ez dute zalantzarik: «gure lehengaia den esnea ezin hobe bada, jogurtak eta izozkiak ere ezin hobeak izango dira». Horregatik, Iztueta baserrian, belarra «urrea bezalakoa» dela diote irmo.

GARDENTASUNA LANTZEN

Gipuzkoara mugatzen da euren merkatua, eta prozesu osoa burutzen dute, ukuilutik dendarainoko banaketara bitarte. Bide osoa gardentasunez erakusteko,

ate irekiko ekimenak antolatzen dituzte asteburuetan, bisita gidatuen bidez. Azkenekoan erditze bat ikusi ahal izan zuten bisitariek, kontatu dutenez.

Kontsumitzaileen ahotara doazen jogurt eta izozki krematsuak «ez dira arruntak, ezberdinak dira». Paperezko ontziak dituzte eta zapore berriak sartu dituzte, arabarbazkoa duena barne. «Barazki gozoa» da, postretarako asko erabiltzen dena, baina Euskal Herrian ez da oso ezaguna. Iztuetaoek Iparralde-tik Lazkaoko baratzerara ekarri zuten eta bertan ekoizten dute jogurtera eramaten duten ba-

razki digestiboa, oso emaitza onekin.

Hiru seme-alaba txikiren ama da Sala, eta ez da egindako hau-tuaz damutu. Ez hori bakarrik, baserrian sinesteko mezua ere zabaldu nahiko luke. «Gogo handia izan behar da, hori bai, eta egiten duzunean sinistu», azaldu du. Bizimodu gogorra bada ere, gogo eta ilusioarekin batera, antolakuntza aipatzen du lazkaotarrak, lanbideak antolatzeko era ezberdinak ematen baititu. «Sinistu dugu baserritik bizitzea posiblea dela, produkzio txiki eta salmenta zuzenarekin. Gure apustua horixe da».